

Guraso maiteak:

Egunotan etxetik irten gabe gauden arren , batzuetan , iritsi naiz kanpoko aireaz ahaztu eta barruko aire berriez gozatzeko aukera ikustera. Aukera berriak , familian , bakarka , anaiarekin ,...

Ez nuen inoiz pentsatuko hainbeste egunez lagunekin egon gabe eta Ikastolako kideekin egon gabe egongo nintzenik. Eta kurtsoa ez da amaitu! Ez gaude oporretan , ez gara inora joan , etxeko salatik egongelara , balkoira , sukaldera , ... Ez ,ez , ez dira oporrak ,ez gaude lagunekin, baina egun hauetan gurasoak hor zaudete , laguntzeko.

Batzuetan amorrua dudanean edo triste nagoenean beti nire ondoan zaudete laguntzeko, lasaitzen laguntzen didazue ,gauza asko egiten ditugu zuekin ez aspertzeko. Aurrekoan, sukaldeko mahaietan pinponean jokatu genuen , mahai-futbola ere egin genuen denbora pasatzeko , pinturarekin marrazkiak egin , eta beste gauza asko eta asko . Ez dira nire bizitzako egunik onenak, baina gurasoak ondoan edukita hobeak dira. Dena egiten duzue guregatik eta uste baino lehenago pasatzen da ,ez oso

azkar, baina azkarrago zuengatik ez balitz, ez nintzen horrela egongo eta inoiz ez dut ahaztuko egun hauek nola pasa ditudan.

Baina dena bukatuko da , itxaropena badator eta sekula santan ez naiz zuetaz ahaztuko nire bihotzean eramango zaituztet beti nire ondoan. *Maren*